



(JARAIPENA)

*Teresatxo Semole'ra daroye.*—Teresatxo Gurenak jayo ta egun batzuk baru gexoalditxo bat zelan izan eban eta bere amak, benetako kistañak euren beañizanetan zuzentzen dakien Aita eñukitsuagana itzulirik, Jaunari egin eutsan otoitz uste-tsuari eskeñak atzera bizira zelan biurtu zan auferagoko zenbakian niñoan.

Oraitiño oso sendatuko ba-zan, osagiñeak iñoanari jaramon egin bear yakon, ta onetara ezkerro Teresatxo'k bere abi berua itxi beaña eban. Baña zelan onen gazte abia laga? Amagandik uñinduta zer egingo eban? Umientzako ama da dana; noz edo bein ama kenduten ba-dautse, euren begi urdiñak negar dagie ta euren biotz bañenetan arantza zoñotzaren sastada lañiak asmetan ditue. A! ama maitasuna baño garbi sendoagorik ludian bai al dago ezer? Amak beste nok gaitu maite? Ta Teresa gazteak zati baterako agur egin biar eutson bere amari, baita amak be bere eñayetako atal kutun ari. Beragaz euki ba-eban, makalik aurkitzen zanean seaska-egalean auzpez bera zaintzen emongo ebazan egun eta gabak. Osasuntsu ba-egoan, lo eragiteko lelo samuñak abestuko eutsozan seaskeari eragiñaz. Bere aur-amesetan ames egingo eban; negar ba-egian, amak be negari emongo eutsan; bañe ba-egian, amak be bañe. Iñoz naigabe-beaztunak alabearen biotza gañaztuten ba-eban, naigabe-beaztun ori uxatzeañen edozer jasango dau. Eskuetan artu ta andrakila bailitzan mosu amakoñak matrail azal goñietan irañi ta bere iri-tsera gora-goraka erabiñirik bere poztasunak gorengo mañaraño igongo eban noski. Baña Jaunak buru ukapen bat eskatzen eutson; ta amari bakarrik bez, aita ta aitzak be luñean iñor maite ba-eben axe txikia eben-eta, iñuenez zatitxo batean, osatu arte baño izan ez añen be, gauza mingotxa yaken alkañegandik banatzea.

Lañosatxo iñudea Martin-Gerin sendikoakaz amaitu ebaza-



nean bere zeregiñak, Terese besuetan ebala, bere baseñirako bidean jari zan. Bizkor eta pozik joyan; bizkor, al ebanik eta lasterñen etxera eldu ta bere bizkide ta semeai pozaldi bat emoteañen, ta pozik, bere semea baizen laztan ebana beso artean eroyala.

Zerua agurka eukan Teresek ta goitiko agur ari zugatzak, egutaizeak eta erekañuetako urak erantzutsoen. Txori abeslariak, Ume Josu'ri Ekito'ra bidean lez, bide-ertzetako zugatzadañetan ezañita alaitasun-eresti ta soñu leunak ataraten eutsezan euren uñe-ereskiñai; mendi-kukutzak bere eru bako gogoaren auitza eben izara zuri bategaz lez eduñez estalduta; negu otza izan añen, odei-ertzak laño geldi urez astunduriko barik argi ta garbi agiri ziran, onela zuzen esan eikean geroago bere «Gogo baten Edestia» idaztean zeru-luñak aldioro bañe egiten eutsoela.

Ibiñi ta ibiñi eldu ziran azkenez etxera ta Taiñe'sendikoentzat Jaungoikuak bialduko aingeru onespen-ekarlea zan Teresatxu; zoriontasun-izañak laster argi egin eban biztoki atan be. Begi argia egin eutsoen ta danak alkañen leyan, Lañosatxo etxandera, Mois onen senaña ta euren lau seme gazteak, iñondiko egiñalak egingo dabez auñerantzean albait bizkoñen onera egin eta oso-osoro sendatu eiten; makiña bat txera, milikeri ta eregu maitekor izango ditu? Lañosatxo'k beti ibiñiko dau beragaz; etxeko arazoetan ba-daragoyo, seaskan eroso ipiñiko dau, ta biañean diarduan arte bertan datzan gotzon txikiñaz unetxo baten be ezta aiztuko. Solora araketan edo ba-doa, ta lanak egiñtea galazoten ba-dautso ta beso artean eroan ezin ba-dau, otzaratxo baten sartu ta «Gofi» eritxon bei eder or emen nata goñiak eukazanaren bizkañean tajutu otzaratxoa ta ofelaxe egurastuko da Terese eguzki-galdatan. Sokil-austen ba-diardu, «Gofi»k laña bedar ze orlegia bazkatuko dau, goruntz begira ortzi-koroko edertasunean ames dagiana lepoan daroanik be igari barik. Landara bedañetan urten biar ba-dau, biak alkañaz joango dira ara be, ta etxandereak bedar ebaten diarduan bitartean Teresatxo latzin-ertzean kukulumuxu edo elbitzez beteriko burdi gañean polito etzunda atsedenduko da, ta bein edo bein dandai egon gura-ta edo oñez ibilten ikasi bear dabela otu yakolako edo zan bestean luze jausten ba-da, iña aratu ta lengo egoerari ipiñiko dau. Ikuskizun zoragañia ta esan eziña benetan! Be-ya eratzi bear ebanean, amantala geñian batu, bere bañuan Teresatxo sartu ta era aretantxe zama gozo arin a aldian ebala okuñuko zeregiñak egin oi ebazan.



Egunak joan egunak etoñi, maitetasuna, babes ona, baseñiko axeak ta udabañiko eguzki epela osasungariak dira ta, goraldi galantak egin ebazan Teresatxo'k aldi gitxi bañu. Matrail gozo guriak keriza margoz goñi jañi yakozan; soña lenagoko margo laruak aldatuta eguzki-estayak ikutu dautsen lañosa baten erara lerdan eta ezpanetako goñitasunean iñi-bañe zoragarria agiri yakon dardaraz; kaskat eta bekoki txikian uñe lakaña kiskufak liñuragarro eratuta. Ta, jakiña! auzoko neska mutil gazteak be Teresatxo gura eben laguntzat, ta batzuetan nai ala ikusi egien etxe ondoko zelayan lasto gañean izten eban Lañosatxo'k, eta umetxuak euren bañu garbietako poza zarata, oyu ta algaraz erakutsi daroe-ta sekulako jolasak eukezan bere inguruan zelairik zelai biñauko akara, urdamutur, andreña ta txingi-liliakaz lora-txorta luzeak eundu ta bere biran ipinten ebezan; beste batzuk lenengo mun eginda Teresatxo'ri eskintzen eutsezan; onek, bañiz, bere eskar ona maitasun-bañe gozo ta sarkor baten bidez erakutsiaz, eskuan artu ta gero ezarian bere albora egozten (botaten) ebazan. O! zoragarriak ziran ziñez umien jai oneik ta Lañosatxo ta Senañak bai eukezala aldi atsegintsuak uñindik jolas jai oneik ikusten!

Bein, diñoenez, onelaxe olgetan ebiltzazala eldu ei yaken eñiko txauburua ta luzero bera begira egon ondoren Teresatxoren asaba ta beste auñetiko ospatsuen egikizun gelgari asko edestu ei eutsiezan, ta gero eskua gora jaso ta onespendu ei eban, aldiaz Abila'ko Terese Gurenaren antzekoa izango zala auñez iragaririk.

Eta gurasoak zer egiten ete eben bitartean? Nondik ete ziran? Teresatxo, euren biotzen amesa ikusten iñoz ba joyazan? Aspaldian ikusi barik, aztuta biar bada? Bai zera! Euren atzera-auñera sañiro egiten eben Semañi'ko baseñira ta osasuntsu ta argi ikusirik euren alaba laztana asko poztuten ziran.

Azkenez, Teresatxo'k amalau iñabete ebazala, 1874'ko Epañla'ren 11'an, geixo-izpi barik, osorik sendatuta, lengo abi berora biurtu eben.

S. ONAINDIA, K. O.

(Jaraitzeko)